



**TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN SEKTOREAN, OSTALARITZA-ESTABLEZIMENDUETAN ETA
BESTELAKOETAN JARDUERAK EGITEN DITUZTEN AUTONOMOENTZAT COVID-19AREN ERAGIN
EKONOMIKOARI AURRE EGITEKO EZOHICO PREMIAZKO LAGUNTZEN DEIALDIA**

1.- DIRULAGUNTZAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da COVID19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzaren ondorioz kalte ekonomikoan eragina murrizteko laguntza ekonomikoak ematea txikizkako merkataritzaren sektorean, ostalaritza-establezimenduetan eta bestelakoetan enpresa-jarduerak egiten dituzten autonomoek, betiere deialdi honen 4.2 atalean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2.- OINARRI ARAUTZAILEAK ETA APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA.

1.- Deialdi hau, oro har, oinarri arautzaileetan, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean (aurrerantzean, DLO) eta hura garatzeko Erregelamenduan (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua) eta 2020rako Udal Aurrekontua gauzatzeko oinarrietan xedatutakoaren arabera arautuko da, eta, modu osagarrian, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta bere izaeragatik aplikagarria izan daitekeen beste edozein arau-xedapenetan xedatutakoaren arabera.

2.- Dirulaguntza horiek lehia bidez emango dira, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.1 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, COVID-19aren osasun-krisiak eragindako inguruabarren eta Sondikako udalerriko merkataritza-sarearen zati handi bat osatzen duten langile autonomoengan alarma-egoeraren deklarazioaren izan dituen eraginaren ondorioz.

3.- DIRULAGUNTZAREN KREDITUA ETA ZENBATEKOA.

Laguntza hauetara 75.000 euro bideratuko dira. Zenbateko hori era proportzionalean banatuko da onartutako eskatzaileen artean, eta laguntzaren zenbatekoa honako hau izango da:

1. 600 € gehienez, martxoaren 14ko Dekretuaren bidez negozioa itxi behar izan duen eta deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen onuradun bakoitzeko.
2. 300 € arte Covid-19ak sortutako krisi ekonomikoaren ondorioz fakturazioa % 75 murriztu duen onuradun bakoitzeko, eta deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiak ez badira aurreikusitako zenbateko oso horretara iristen, modu proportzionalean banatu ahal izango da, gehienez ere honako muga hauek ezarriz:

- 1.- 950 € gehienez, martxoaren 14ko Dekretuaren bidez negozioa itxi behar izan duen eta deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen onuradun bakoitzeko.
- 2.- 475 eurora arte Covid-19ak sortutako krisi ekonomikoaren ondorioz fakturazioa % 75 murriztu duen onuradun bakoitzeko, eta deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu.



4.- ONURADUNAK ETA BEHARKIZUNAK

4.1 ONURADUNAK.

Dirulaguntza honen onuradun izan ahalko dira enpresa-jarduerak honako hauetan egiten dituzten autonomoak:

- a) txikizkako merkataritzaren sektorea.
- b) ostalaritza-establezimenduetan.
- c) dirulaguntza ematea eragin duten beste batzuk

Baldin eta 4.2 atalean ezarritako baldintzak betetzen badira.

4.2. BEHARKIZUNAK.

Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1.- Martxoaren 14an autonomoetan alta emanda egotea.

2.- 2020ko martxoaren 14an, alarma-egoera hasi zen egunean, bere kontura edo autonomoen araubidean eta publikoari irekitako establezimendu baten bidez ostalaritzako, zerbitzuetako eta txikizkako merkataritzako jarduera ekonomikoren bat garatzea, baldin eta:

- Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jartzearen ondorioz aldi baterako erabat itxi behar izatea. Dekretu horren eranskinean jasotzen dira jendearentzako irekiera etenda duten ekipamendu eta jardueren zerrenda eta, hala badagokio, izan dituen eta izan ditzakeen aldaketa eta luzapenak. (1. mota)
- Edo jarduera nabarmen murriztu izana eta horrek diru-sarreraren % 75 baino gehiago jatsiera eragitea, alarma-egoera deklaratu aurreko sei hileko naturalean egindako batez bestekoarekin alderatuta. (2. mota). Jarduerak ez badaramatza alta emanda diru-sarrerak egiaztatzeko eskatzen diren sei hilabeteak, jarduera-aldia kontuan hartuta egingo da.

3.- Jendearentzat irekita dagoen bere establezimendua eta helbide fiskala Sondikako udalerrian izatea.

4.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, eta 2020ko martxoaren 14a baino lehen udalaren zordun ez izatea, zor mugaeguneratu, likido eta galdagarriengatik.

5.- Ez egotea dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 13. artikularen 2. eta 3. zenbakietan jasotako debekuen eraginpean. Baldintza hori eskaera aurkezten den egunetik dirulaguntza ordaintzen den egunera arte bete behar da, hala badagokio.

6.- Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik ez izatea, ezta horretarako gaitasuna galarazten duen legezko debekurik ere, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, berdintasun eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera edo emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik gertatutakoak barne.



7.- Martxoaren 14a baino lehen enpresa-jarduera egin izana. Horretarako 2020ko lehen hiruhilekoan 3.000 €-tik gorako fakturazioa egiaztatu beharko du edo 2020ko lehenengo hiruhilekoko BEZaren likidazioa. Jarduerak ez bada alta egoeran egon aldi horretan guztian, Sondikako Udalak emandako jarduera-lizentziaren kopia aurkeztu beharko du; lizentzia hori 2020ko urtarrilaren 1etik martxoaren 14ra bitartekoa izango da.

5.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA.

Laguntza honen xede diren jarduketatzat hartuko dira honako hauek, 2020ko martxoko alarma-aldia hasi eta alarma-egoera amaitu eta hurrengo bi hilabeteetan:

1. Langile Autonomoen Araubide Berezian edo, hala badagokio, Gizarte Segurantzaren edo nahitaezko mutualitate profesionalean norberaren konturako langile gisa kotizatzen ordainketari dagozkion kuotak. Gastu hori ez da laguntza honen xede izango beste administrazio publiko batzuek diruz lagundu badute.
2. Autonomoen edo mikroETeen kasuan, beren kargura langile bat edo gehiago badituzte, enplegatzaileak 2020ko martxoaren 14an atxikita zeuden langileei ordaindutako gastuak. Jarduera aldi baterako utzi aurretik derrigorrezkoa izango da lan-legerian araututako bermeak, betebeharrak eta prozedurak beteta edukitzea.
3. Negozio-lokalen errentamendu-gastuak, betiere familia-etxebizitza baten zati ez badira eta lokalaren errentatzailearekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko 2. mailara arteko ahaidetasun-harremanik ez badago, eta errentatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkidea edo partaidea ez bada.
4. Egiten ari zen jarduerari zuzenean atxikitako horniduren, makinaren, instalazioen eta ekipoen mantentze-gastuak.
5. Ekipamendu informatikoa, teknologikoa eta teknologia berriekin lotutako prestakuntza.
6. Kanpoko laguntza aditua ekipoak, instalazioak eta pertsonak desinfektatzeko, kontingentzia-egoerari erantzuteko soilik.
7. Kanpoko aholkularitza edo laguntza aditua, telelana, segurtasun- edo kontingentzia-planak, kontziliatzaile giza baliabideetako planak, ekoizpena eta logistika kudeatzeko planak eta erreferentziatzeko egoerari berehala erantzuteari lotutako beste plan batzuk garatu, definitu eta ezartzeari lotuta.
8. Jardueraren aseguru-primek dagozkien gastuak.
9. Jardueraren hornitzaileei egindako ordainketa mugaeguneratuak.
10. Langileak edo bezeroak babestea edo pandemia zabaltzea saihestea helburu duten materialak hornitzeko edo lokalak egokitzeko gastuak.
11. Jarduerari datzekion beste edozein gastu finko eta errepikakor

Emandako laguntzaren onuradun izateko, laguntzaren zenbateko bereko edo handiagoko gastuak aurkeztu beharko dira.

6. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA.

Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuek abian jar ditzaketan laguntzekin, baldin eta COVID-19ak eragindako galera baino munta handiagoa jasotzen ez bada.



7.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA

1.- Deialdi honetan araututako laguntzak lortzeko informazioa Sondikako Udalaren webgunean eta egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri.

2.- Eskabideak telematikoki aurkeztuko dira egoitza elektroniko orokorraren bidez (<http://www.sondika.eus/es-ES/Tramites/Paginas/default.aspx>), egoitza elektronikoaren "nabarmenduak" atalean horretarako ezarritako prozeduran, edo, aurrez aurre, udaleko sarrera-erregistroaren bidez.

3.- Eskabideak aurkezteko epea 10 egun naturalekoa izango da, deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Alkateak epe hori luzatu ahal izango du, alarma-egoeraren amaiera atzeratzen bada.

4.- Dirulaguntzaren eskaera ezarritako epetik kanpo aurkeztea eta oinarri hauetan eskatzen diren agiriak ez aurkeztea ez onartzeko arrazoiak izango dira.

8.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

1.- Interesdunak edo haren legezko ordezkariak aurkeztu beharko du eskabide normalizatua, eta honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu nahitaez:

- 1) Oinarri hauekin batera doan eranskinaren arabera, honako alderdi hauei buruzko zinpeko adierazpena:
 - a) Jarduera ekonomikoa eta haren alta-data, helbide fiskala eta, hala badagokio, jarduera garatzeko lokalarena adieraztea, 4.2.2 puntuan ezarritako kasuetako bati baitagozkio.
 - b) Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea eta eskatzailearen lan-bizitzari buruzko txostena, gaur egungoa.
 - c) Egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera dirulaguntzak lortzeko. Beharkizun hori eskaera aurkezten den egunetik dirulaguntza ordaintzen den egunera arte bete behar da, hala badagokio.
 - d) Martxoaren 14a baino lehen enpresa-jarduera izan duela. Horretarako 2020ko lehen hiruhilekoan 3.000 €-tik gorako fakturazioa egiaztatu beharko du edo 2020ko lehenengo hiruhilekoko BEZaren likidazioa. Jarduerak ez badu alta egoerarik izan aldi horretan guztian, Sondikako Udalak emandako jarduera-lizentziaren kopia aurkeztu beharko du; lizentzia hori 2020ko urtarrilaren 1etik martxoaren 14ra bitartekoa izango da. Aurreko hilabeteetan enpresa-jarduera izan duela.
 - e) Eskatzailea ez dagoela azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta, zehatzago esanda, 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan eta 34. artikuluko 5. zenbakian ezarritako debekuen eraginpean onuradun izateko eta ordainketa jasotzeko.
 - f) Eskatzaileak konpromisoa hartzen duela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan dirulaguntzen onuradunei ezarritako betebeharrak betetzeko.
 - g) Eskatzaileak konpromisoa hartzen duela xede berarekin dirulaguntza aurkeztu aurretik emandako dirulaguntzen berri emateko, eta konpromisoa hartzen duela ahalik eta lasterren jakinarazteko eskaera aurkeztu ondoren eta ebazpena eman aurretik lortutako laguntzak.



- h) Eskatzaileak eskakizuna onartzen duela eta automatikoki dirulaguntza osorik edo zati batean itzultzeko konpromisoa hartzen duela (dagokion zenbatekoan), baldin eta hamar eguneko epean, errekerimendua egiten zaionetik zenbatzen hasita, modu sinesgarrian egiaztatu ezin badu dirulaguntzaren zenbatekoak, edozein administraziok edo erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako balizko dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, ez duela gainditzen koronabirusak eragindako krisiaren ondorioz diruz lagundutako gastua.
 - i) Eskatzailea ados dagoela prozedura hau jarraitzearekin eta hari kreditua ematen dion aurrekontu-aldaketa izapidetzearekin, eta baita horien epeak ez etetearekin ere, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 3.3 Xedapen Gehigarrian adierazitakoarekin bat etorritz.
- 2) Dirulaguntza sartuko den kontu korrontearen zenbakia eta titulartasuna egiaztatzen duen banku-agiria edo antzekoa. Kontu-zenbakia eta titularra identifikatzea ahalbidetzen duen edozein dokumentu aurkeztea onartuko da (ordainagiria, aurrezki-libretaren kopia, etab.).
 - 3) Eskatzaileak ordezkariarekin jarduten badu, dagokion ahalordea egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

9.- PROZEDURA ETA PROZEDURAREN INSTRUKZIOA

Deialdi honetan araututako dirulaguntza DLOren 22.1 artikuluan eta horiekin bat datozenetan ezarritakoaren arabera emango da.

Laguntza hori emateko prozedura eskabideak aurkezteko epea ireki ondoren hasiko da.

Kultura-teknikariak izango du espedienteak antolatu eta bideratzeko eskumena, hargatik eragotzi gabe administrazio publikoek beren burua antolatzeko duten gaitasunetik erator daitezkeen berezitasunak. Udal-eremu horretatik, eskaera-espedienteak berrikusiko dira, eskatutako dokumentazioa dutela egiaztatuko da eta, hala badagokio, akatsak zuzentzeko izapidea egingo da.

Eskabideak ez baditu betetzen oinarri hauetan ezarritako baldintzak, interesdunari gehienez ere 5 egun balioduneko epean zuzentzeko eskatuko zaio. Eskaera zuzentzen ez bada, ezetsitatzeko joko da.

Gainera, ofizioz egingo dira eskabideetan agertzen diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat eta komenigarritzat jotzen diren jarduketak guztiak, laguntza emateko espedienteak ebazteko baloratu beharko direnak.

Aurkeztutako dirulaguntzen eskabideak baloratzean, organo instrukzio-egileak egiaztatu ondoren deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela, txostena egingo da, eta organo eskudunari helaraziko zaio. Alkate-udalburuak jaulkiko du laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena, Alkatetzaren dekretu bidez.

Erabakia hartzeko eta jakinarazteko gehieneko epea hamalau egun baliodunekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari eta haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo berean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, jurisdikzio hori arautzen duen legean aurreikusitako moduan eta epeetan.



10. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Onuradunen betebeharrak dira:

- a) Enpresa-jarduerari gutxienez 6 hilabetez eustea, alarma-egoera amaitu dela/neurriak kendu direla argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- b) Dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudiak aurreikusitako finantza-egiaztapeneko eta -kontrolako jarduerak onartzea.
- c) Jasotako funtsak itzultzea, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako kasuetan, eta, bereziki, dirulaguntza lortzeko eskatutako baldintzak faltsutuz edo hori eragotzi dutenak ezkutatzeko lortzeagatik, edo dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan aurreikusitako finantza-egiaztapeneko eta -kontrolako jarduketari aurre egitea, aitzakiak jartzea, eragozpenak jartzea edo uko egitea agertzeagatik.
- d) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan zehazten diren gainerako betebeharrak betetzea.
- e) Onuraduna gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 3.b) artikuluko kasuetan badago, aplikatu beharreko publizitate aktiboaren betebeharretara egokitu beharko da.

11. LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

1.- Deialdiaren 10. puntuan eskatutako betebeharren kontrola ofizioz egiaztatuko dute Lurralde eta Ogasun arloek.

2.- Onuradunak honako hauek egin beharko ditu 2020ko azaroaren 25a baino lehen:

- a. Errolda-egoeraren ziurtagiri eguneratua, jarduera ekonomikoa alta-datarekin, helbide fiskalarekin eta jarduera garatzeko lokalarekin adierazten duena.
- b. Justifikazioa aurkezten den egunean eguneratutako lan-bizitzaren txostena.
- c. Establezimenduaren irekiera-data egiaztatzea
- d. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera dirulaguntzak lortzeko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- e. Justifikazio-kontua, honako agiri hauek jasoko dituenak:
 - I. Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, honako hauek adierazita: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data. Emandako dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoari dagokiona. Beste dirulaguntzaren bat egon bada, jasotako dirulaguntzen zenbateko osoaren gastuak justifikatu beharko dira.
 - II. Merkataritzako trafiko juridikoan pareko froga-balioa duten edo administrazio-eraginkortasuna duten fakturak edo agiriak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan sartutakoak eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzeko agiriak.



- III. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza jasotzen duen zinpeko aitortpena, zenbatekoa eta jatorria adierazita, gainfinantzaketarik izan ez dela adierazita.

12. DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA.

Laguntza horiek ordainketa bakarrean ordainduko dira, emandako zenbateko osoan, banku-transferentzia bidez, dirulaguntza emateko ebazpena ematen den egunetik aurrera, eta ez da beharrezkoa izango bermerik eratzea.

13. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA.

1.- Deialdi honetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez badira, Zerbitzu Kudeatzaileak administrazio-espeditentea abiaraziko du ofizioz. Espediente horrek, interesdunari entzun ondoren, justifikatu gabeko funtsak itzultzeko prozedura hastea proposatuko dio dirulaguntza eman zuen organoari, dagozkion berandutze-interesen likidazioarekin batera.

2- Jasotako zenbatekoaren itzulketa, hala dagokionean, DLOren II. tituluaren eta DLOren III. tituluaren xedatutakoaren arabera egingo da.

3- Dirulaguntzen Lege Orokorraren 36. artikuluan jasotako emakida-ebazpenaren baliogabetasun-arrazoiekin batera, jasotako zenbatekoak, osorik edo zati batean, itzuli beharko dira, bai eta dirulaguntza ordaintzen den egunetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den arte dagokion berandutze-interesa eskatu ere, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan oro har aurreikusitako kasuetan. Onuradunak ez badu betetzen enpresa-jarduerari deialdiko 10. puntuan ezarritako sei hilabetez eusteko betebeharra, itzuli egin beharko du kontzeptu horrengatik dirulaguntzaren zenbatekoa.

4.- 6. puntuan ezartzen den bezala, emandako laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio publikotatik edo erakunde pribatutatik jasotako dirulaguntzekin. Nolanahi ere, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk koronabirusak eragindako krisiaren ondorioz jardueraren gastua helburu bererako emandako dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera ez da inola ere ordainduko. Hala bada, udal-laguntza osoa edo jasotako beste laguntzen arabera dagokion zatia itzuli beharko da.

5.- Itzultzeko prozedura hasteari kalterik egin gabe, dirulaguntza emateagatik ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, onuradunak organo kudeatzaileari jakinarazi ahal izango dio, sarrera-erregistroaren bidez, eta jasotako zenbatekoa borondatez itzuli ahal izango du. Horretarako, harremanetan jarri beharko da Zerbitzu Kudeatzailearekin, jarraitu beharreko izapideen ondorioetarako. Era berean, berandutze-interesak kalkulatuko dira, harik eta itzuli arte.